



## **AUTONOMIA SUSTATZEKO ZERBITZUAREN ARAUDIA**

### **Autonomia Sustatzeko Espazioaren den udal zerbitzua arautzen duen araudia**

Aurkibidea.

#### **Lehen titulua.**

1. artikulua. Xedea.
2. artikulua. Aplikazio eremua.
3. artikulua. Autonomia Sustatzeko Espazio-zerbitzuaren definizioa.
4. artikulua. Zerbitzuaren helburu estrategikoak.
5. artikulua. Helburu orokorrak.

#### **Bigarren titulua.- Autonomia Sustatzeko Espazio - Udal Zerbitzua.**

##### **I. kapitulua. Zerbitzuan sartutako eta kanpoan utzitako prestazioak, zerbitzuaren aldaera eta ezaugarriak.**

6. artikulua. Zerbitzuan sartutako prestazioak.
7. artikulua. Eskuhartze eremua.
8. artikulua. Arreta emateko egunak eta ordutegia.

##### **II. kapitulua. Erabiltzaileak.**

9. artikulua. Zerbitzuan sartzeko baldintza teknikoak.
10. artikulua. Zerbitzua erabiltzeko baldintzak.
11. artikulua. Erabiltzaileen eskubideak.
12. artikulua. Erabiltzaileen betebeharrak.

##### **III. kapitulua. Sartzeko prozedura eta zerbitzuaren jarraipena.**

###### **1. atala. Eskatzaileen zerrendan sartzea.**

13. artikulua. Eskatzaileen zerrenda.
14. artikulua. Zerbitzuaren eskatzaileen zerrendan sartzeko eskabidea.



15. artikulua. Eskaerarekin batera aurkeztu behar den dokumentazioa.

16. artikulua. Tramitazioa.

17. artikulua. Ebazpena.

18. artikulua. Zerbitzura egokitzea.

## **2. atala. Zerbitzuan onartzea eta sartzea.**

19. artikulua. Zerbitzuan onartzea.

## **3. atala. Zerbitzuaren jarraipena.**

20. artikulua. Jarraipena eta ebaluazioa.

## **IV. kapitulua. Zerbitzua etetea eta iraungitzea.**

21. artikulua. Zerbitzua etetea eta iraungitzea.

## **V. kapitulua. Zerbitzuaren erregimen ekonomikoa.**

22. artikulua. Autonomia sustatzeko espazioan, udal zerbitzuaren prezioak: kontratuaren prezioa eta erabiltzailearen ekarpen ekonomikoa.

23. artikulua. Finantzazioa.

24. artikulua. Erabiltzaileak egin behar duen diru ekarpena.

### **Xedapen gehigarria.**

#### **Lehen azken xedapena.**

#### **Bigarren azken xedapena.**

##### **I. eranskina. Sartzeko baremoa.**

II. eranskina. Erabiltzaileen ekarpen ekonomikoa.



## LEHEN TITULUA

### **1. artikulua. Xedea.**

Araudi honen xedea da Autonomia Sustatzeko Espazio- zerbitzuaren prestazioa arautzea, Aretxabaletako udalerrian pertsona nagusi zaurgarriari, ahulei eta I. graduako mendekotasunekoei zerbitzua emateko.

### **2. artikulua. Aplikazio eremua.**

Araudi honetan arautzen den zerbitzua emango da Aretxabaletan, Errekabarren 12ko lokalean, hartarako gaitu eta hornituko dena.

### **3. artikulua. Autonomia Sustatzeko Espazio- Zerbitzuaren definizioa.**

Zerbitzuak gailu bat jartzen du pertsonen eskura, egunean zehar bertara joateko, eta hor intentsitate baxuko laguntza bat ematen zaie, haien arreta premia espezifikoen arabera.

Zerbitzuak gehienez ere 12 lagunentzako lekua izango du unitate bakoitzeko.

Hala ere, taldea osatu ahal izango da gutxienez zortzi pertsonarekin.

### **4. artikulua. Zerbitzuaren helburu estrategikoak.**

Hona hemen zerbitzuaren helburuak:

- a) Pertsona nagusi ahulen autonomiari eusten laguntzea, haien ohiko ingurunean jarraitzen eta haien sozializazioan, eta, gainera, isolamendu egoerak konpentsatzen.
- b) Aukera bat ematea pertsona nagusi autonomoei, harremanak behar badituzte eta normalean bakarrik edo lanean diharduten senideekin bizi badira.
- c) Harrera, aisialdi eta bizikidetza zerbitzu bat eskaintzea pertsona nagusiei, prebentzio jardurekin, arreta pertsonalizatuekin eta jolas jardurekin, oinarrizko helburua izanik bizi kalitatea hobetzea.

### **5. artikulua. Helburu orokorrak.**

5.1. Gizarte eta harreman funtzionamendua sustatzea, hondatu ez dadin eta okerrera egin ez dezan: Komunikazioa eta taldeko kide izatearen sentimendua sustatzea, gizarte isolamendurik izan ez dezan, eta estrategiak estimulatzea izan daitezkeen harreman gatazkei aurre egiteko.

5.2. Funtzio psikoafektiboen eremua sustatzea hondatu ez dadin, izan dezakeen depresio sintomatologia prebenitzeko eta/edo arintzeko, eta izan daitezkeen antsietate egoeren ondorio negatiboak prebenitzeko.

5.3. Funtzio kognitiboen eremua sustatzea, hondatu ez dadin eta okerrera egin ez dezan: gaitasun kognitiboak estimulatzea, hala nola kontzentrazioa, arreta, hizkuntza, kalkulua, orientazioa eta memoria.



5.4. Funtzio fisikoen eremua sustatzea, hondatu ez dadin eta okerrera egin ez dezan: oinarrizko mugikortasunari atxikitzea; artikulazioen malgutasunari eta muskulu potentziari eustea; koordinazio eta oreka gaitasunak lantzea; eta eskuzko gaitasunak garatzea.

## **BIGARREN TITULUA**

### **AUTONOMIA SUSTATZEKO ESPAZIO-UDAL ZERBITZUA**

#### **I. KAPITULUA.- ZERBITZUAN SARTUTAKO ETA KANPOAN UTZITAKO PRESTAZIOAK, ZERBITZUAREN ALDAERA ETA EZAUGARRIAK**

##### ***6. artikulua. Zerbitzuan sartutako prestazioak.***

Autonomia Sustatzeko Espazio -Udal Zerbitzuan prestazio hauek sartzen dira:

###### 6.1. Informazioa:

Erabiltzaileei aukera ematea informazio egokia eta nahikoa eskuratzeko beren eskubideei eta zerbitzuari buruz, behar den denboraz eta behar den moduan.

###### 6.2. Jarraipen balorazioa:

Arreta pertsonalizatuko planaren aldian aldiko ebaluazioak egitea, kasuan-kasu dagokion sakontasunez.

Aurreikusten da ebaluazioa egitea: egokitzen aldian lehen eta hirugarren hilabetean, eta geroago, urtero.

###### 6.3. Esku hartze gizarte-hezkuntzazkoa eta psikosoziala:

— Estimulatuzailea edo errehabilitatuzailea: gaitasunak estimulatzeko jarduerak eta ariketa sinpleak, eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak egiteko.

— Hezituzailea: aisia, hezkuntzako eta kulturako jarduerak.

###### 6.4. Lagun egite soziala: Lagun egite emozionala: euskarri emozionala eta orientazioa krisi egoeretan.

Lagun egitea, gaitasunak lortu ditzan gizarte harremanak edo harreman pertsonalak izateko, eta aukerak sortu dakizkion harremanak izateko.

##### ***7. artikulua. Esku hartzearen eremua.***

7.1. Eremu indibiduala: Esku hartzea da pertsona nagusi bakoitzarentzat, zer baliabide eta aukera duen jakiteko, jarduerak haren benetako gaitasunetara egokitzeko.

7.2. Taldeko eremua: tailerrak eta jarduerak antolatzea, parte hartzaileen artean gizarte harremanak sustatzeko.



7.3. Komunitateko eremua: Esku hartze hau da pertsona nagusiak integratu daitezen, batetik, zerbitzua dagoen zentroaren bizitzan eta, bestetik, hurbilen daukan ingurunearen bizitzan.

### **8. artikulua. Arreta emateko egunak eta ordutegia.**

Autonomia Sustatzeko Espazioko zerbitzua egun guztietan eskaini ahalko da astelehenetik ostiralera, jaiegunetan eta oporraldietan izan ezik.

Urtero egutegi bat egingo da zerbitzurako.

Ordutegia egokituko zaie jarduera mota bakoitzean izena emanda dauden taldeei eta pertsoneri, baina ordutegia izango da gutxi gorabehera 10:00-13:00, goizean eskainiz gero, eta 15:30-18:30, arratsaldean eskainiz gero.

Talde bakoitzari zerbitzua 3 orduz eskainiko da, goiz edo/eta arratsaldez, sortzen diren taldeen arabera. Zerbitzuaren garapenean zehar, Udalak ordutegiak aldatu ahal izango ditu beharren eta eskariaren arabera, bai eta zerbitzu honen erabiltzaileen interesen arabera ere. Aldaketa hori, enpresa esleipendunari jakinaraziko dio behar besteko aurrerapenarekin.

Aretxabaletako udalak, arestian aipatutako ezaugarriak egokitu ahal izango ditu zerbitzuaren eta erabiltzaileen beharretara, eta, era berean, talde kopurua aldatu ahal izango du eskaera kopuruaren arabera.

## **II. KAPITULUA. ERABILTZAILEAK**

### **9. artikulua. Zerbitzuan sartzeko baldintza teknikoak.**

Oro har, zerbitzuaren hartzaile izango dira udalerriko adineko pertsonak Gizarte Zerbitzuek bideratuta daudenak eta intentsitate txikiko laguntza behar dutenak zerbitzuak artatutako premiei erantzuteko. Pertsona horiek honako ezaugarri hauetako batzuk izan beharko dituzte:

- ✓ Aretxabaletan erroldatuta egotea.
- ✓ Zerbitzuan sartuko dira lehenik eta behin:
  - 65 urtetik gora duten pertsonak, hauskortasun-, ahultasun-, bakardade edo mendekotasun arineko arriskuan edo egoeran daudenak ( 1. Gradua, MBBn 25 eta 39 puntu artean lortu dutenak).Betiere haien osasun psiko-fisikoko egoerak aukera ematen badie intentsitate txikiko zerbitzura behar bezala egokitzen eta hura nahikoa bada haien beharrak asetzeko.

Bigarrekin:

- Mendekotasuna aitortu barik duten 75 urtetik gorako pertsonak, 25 puntutik behera MBBn eta egoera ahulean.

Hirugarrenik:

- 65 urtetik gorako pertsonak, isolamendua, bakardadea, abandonua, tratu desegokia izateko egoeran edo arriskuan daudenak.

### **10. artikulua. Zerbitzua erabiltzeko baldintzak.**



Lehen esandako talde horietako bateko kidea izatea. Teknikariek proposatuta, baldintza hori betetzetik salbuetsi daiteke familiako kideen etxeetan txandaka bizi den pertsona.

Erabiltzaile hauek ezin izango dira Zerbitzuan sartu:

- Gaixotasun infekzio-kutsakor bat izanez gero, hura osatu arte.
- Portaera nahasmenduak izanez gero eta/edo zerbitzuaren funtzionamendua edo bizikidetzaren normala larriki aztoratu dezaketen portaerak izanez gero, edo portaera horiek arriskua ekarri gero pertsonari berari, beste erabiltzaile batzuei edo profesionalari.
- Osasun laguntza espezializatu eta/edo iraunkor bat behar badute, zerbitzuaren berezko hornikuntzen irismenetik eta aukeretatik kanpo.

### **11. artikulua. Erabiltzaileen eskubideak.**

— Abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa, 9. artikuluan, eta apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuak ezarritakoaz gain, zeinaren bidez onartu baita Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubideen eta betebeharren gutuna, eguneko arretarako udal zerbitzuaren erabiltzaileek eskubidea izango dute:

— Zer eskubide daukaten jakiteko eta haiek defendatzeko, eta eskubide hori ulertzen da dela informazio, partizipazio, iradokizun eta kexa bideak erabiltzea, eskubideak benetan erabili ahal izateko.

— Ahalik eta errespeturik handienaz arreta jasotzeko, zuzentasunez eta ulermenez, ahozko harremanetan nahiz jardueretan.

— Errespetu osoz hartzeko, haien beharrei buruz eta, ahal den neurrian behintzat, haien lehentasunei buruz.

— Errespetuz hartzeko haien pribatutasunari buruz eta haiei dagokien informazioaren konfidentzialtasunari buruz.

— Arreta jasotzeko Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan, norberak hobetsitakoaren arabera. Horrela, zerbitzua adjudikatzeko administrazio kontratuaren agirietan, txertatu eta betearaziko da hizkuntza ofizialak zer-nola erabili behar diren erabiltzaileentzako ahozko eta idatzizko komunikazioetan eta jardueretan.

— Zerbitzuaren edozein baldintza aldatu baino lehen aldaketa horren berri izateko.

— Zerbitzuaren kalitaterako eskubidea, araudi honetan zehazten diren baldintza materialei, funtzionalei eta langileen gainekoei jarraikiz.

— Zerbitzuaren ebaluazioan parte hartzeko.

### **12. artikulua. Erabiltzaileen betebeharrak.**

Abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa, 10. artikuluan ezarritakoaz gain, eguneko arretarako udal zerbitzuaren erabiltzaileek bete behar hauek izango dituzte:



- Gizarte langileari beharrezko dokumentuak ematea bere egoera sozio-ekonomikoa baloratzeko.
  - Zerbitzua ematen esku hartzen duten langile profesionalen lana erraztea, haiekin lankidetzan aritzea eta haiek ongi tratatzea.
  - Ez eskatzea ezein prestaziorik, ez badago aldez aurretik adostuta.
  - Udal zerbitzu teknikoei jakinaraztea norberaren egoera sozioekonomikoan izandako edozein aldaketa.
  - Behar besteko aurrerapenarekin jakinaraztea udal teknikariei edozein egoera pertsonal sortzen bada, egoera horrek ekarriz gero aldaketaren bat ematen ari den zerbitzuaren edozein alderditan.
  - Zerbitzuan ikusi dituzten irregulartasunen berri ematea udal zerbitzu teknikoei.
  - Udal teknikariei adieraztea kuota zer bankuren bidez eta zer kontu korronteren bidez ordainduko den.
  - Esleitutako kuota hilero ordaintzea.
  - Udal teknikariei informatzea zerbitzua eman bitartean sortzen diren gaixotasun infektzioso-kutsakorren ganean, langileek beharrezko babes neurriak hartzeko.
  - Erregulartasunez joatea zerbitzuaren jardueretara eta, bertan ez badago, arduradunari jakinaraztea ez dela joango bilerara edo bileretara, eta, ahal bada, jakinaraztea absentsia zenbat denboran luzatuko den.
  - Absentsiaaldiak errespetatzea, 21. artikuluan ezarritako gehienekoa gainditu barik.
- Betebehar horietakoren bat bete ezean, zerbitzua eten edo iraungi egingo da, araudi honetan araututako prozeduraren bidez.

### **III. KAPITULUA. -SARTZEKO PROZEDURA ETA ZERBITZUAREN JARRAIPENA**

#### **1. ATALA. Eskatzaileen zerrendan sartzea**

##### ***13. artikulua. Eskatzaileen zerrenda.***

Zerbitzuaren eskatzaileen zerrenda da tresna bat antolatzen duena zerbitzua esleitzean zer lehenetasun jarraitu, gizarte zerbitzuetako teknikariek egindako balorazioaren arabera.

##### ***14. artikulua. Zerbitzuaren eskatzaileen zerrendan sartzeko eskabidea.***

Autonomia Sustatzeko Espazio-Udal zerbitzuaren eskatzaileen zerrendan sartzeko, arautua araudi honetan, interesdunak eskaera egin beharko dio aldez aurretik organo eskudunari, eskatzaileak sinatu beharko du eta udalak hartarako dituen erregistroetako edozeinetan aurkeztu, edo urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Herri Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, 16.4 artikuluan aurreikusitako erregistroetan.



Prozesuaren edozein unetan, interesdunak atzera egin dezake bere eskaeran, eta, kasu horretan, idatziz egin beharko du. Horrek ekarriko du espedientea artxibatzea.

Era berean, kasuaren arduradunak txostena egin ahal izango du espedientea artxibatzeko, eskatzaileak edo haren ordezkariak eskaerari ahoz uko egiten badio.

Eskatzaileak eskaera orrian zehaztuko du zerbitzua zer hizkuntzatan jaso gura duen, euskaraz edo gaztelaniaz.

#### **15. artikulua. *Eskaerarekin batera aurkeztu behar den dokumentazioa.***

Aretxabaletako Udalak, Nisae-ren Nodoaren bidez, beharrezkoak direnak egiaztatu eta kontsultatuko ditu interesdunek administrazioaren esku jarri dituzten datuei buruz, baita beste edozein ere, errekeritua zerbitzuaren tramitazio administratiboa egiteko. Hori dela eta, elkarreragingarriak izan daitezkeen datuak eskatzeari utziko zaio, betiere interesdunak ez badu egiten datu horiek erabiltzearen aurka; kasu horretan, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

Administrazio publikoen artean datu bitartekaritzarako oinarria zehazten da urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan, zeinetan aitortzen baita herritarrek eskubidea dutela edozein administraziok egindako dokumentuak ez aurkezteko, jatorrizko dokumentuak ez aurkezteko, aplikatzekoa den araudi erregulatzailerak eskatu ez dituen datuak edo dokumentuak ez aurkezteko, edo interesdunak edozein administraziori lehenago eman izan dizkionak ez aurkezteko.

Era berean, 40/2015 Legearen 155. artikulua adierazi bezala, administrazioek betebeharra dute datu trukean kolaboratzeko, eta herritarri buruz dituzten datuak eman behar dituzte.

Ildo horretatik, Aretxabaletako Udalak baldintza hauek egiaztatu behar ditu Nisae datu bitartekaritzarako plataformaren eta beste administrazio batzuen zerbitzuen eguneko arreta zerbitzua eskuratzeko:

- Poliziaren Zuzendaritza Nagusia: nortasun datuak kontsultatu eta egiaztatzea.
- Katastroaren Zuzendaritza Nagusia: Katastro datuak kontsultatzea.
- Foru Ogasunak: ondasun higiezinak kontsultatzea.
- Foru Ogasunak: PFEZ kontsultatzea.
- Foru Ogasunak: kontu mailari buruz kontsultatzea.
- Foru Ogasunak: ondare mailari buruz kontsultatzea.
- Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala: prestazio sozial publikoak kontsultatzea.
- Lanbide: DSB errenta kontsultatzea.
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia: Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean izatearen kontsulta.





— Foru Ogasunak: zerga betebeharrak egunean izatearen kontsulta.

Era berean, Aretxabaletako Udalak ofizioz egiaztatuko du:

Eskatzailearen eta etxe berean bizi diren gainerakoen errolda agiria.

Ezin bada kontsultatu datu bitartekaritzarako plataformen bidez edo hartarako egokitutako beste sistema elektronikoa batzuen bidez, salbuespen moduan eskatu ahal izango zaio eskatzaileari dokumentazioa aurkeztu dezala.

Dokumentazio hau erantsi behar zaio eskaerari:

— Eskatzailearen NAN agiria, edo edozein identifikazio agiri baliokide.

— MBB, bakarrik aitortuta izanez gero mendekotasun egoera, eta kasuaren arduradunak egokituz baloratuz gero hura bidaltzea, informazio interesgarria delakoan begiralearentzat. Arrasateko erabiltzaileek ez dute zertan aurkeztu MBB, baldin eta eskuratzeko foru artxibotik idatzizko baimena ematen badute.

Egoera ekonomikoaren datuak.

- a) Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren azken aitortpena, edo horrelakorik ezean, Ogasunaren ziurtagiria, aitortpena egiten behartuta ez dagoela egiaztatzen duena.
- b) Oraingo diru sarrerak egiaztatzea, edozein kontzepturengatik: gizarte aurreikuspeneko pensio eta prestazio publikoak, pribatuak eta atzerrikoak, nominak, enpresa jardueren errendimenduak eta abar.
- c) Diru sarreren egiaztatzea, kapital higiezinaren errendimenduengatik, halakorik egonez gero.
- d) Kapital higigarrien errendimenduen ziurtagiria.
- e) Banku entitatea eta kontu korrontearen zenbakia, eta horren bidez hilero ordainduko da ezarritako prezioa.
- f) Beste edozein dokumentazio, udaleko gizarte zerbitzuek interesgarritzat jotzen badute.

Eskatzaileak ez badu gura bere egoera baloratzea edo ez badu hura egiaztatzen modu frogagarrian, kontsideratuko da uko egiten diola bere egoera ekonomikoa itxaron zerrenda osatzen duen baremoan kontuan hartzeari (halako zerrendarik egonez gero) edo uko egiten diela ezarritako laguntzei. Hortaz, behartuta egongo da zerbitzua ordaintzeko ezarritako gehieneko kuota ordaintzen.

Eskaerarekin batera aurkeztu den dokumentazioa osatugabea bada edo akastuna, eskatzaileak 10 egun izango du beharrezko dokumentazioa aurkezteko edo atzemandako akatsak zuzentzeko, eta jakinaraziko zaio, hala egin ezean, ulertuko dela eskaerari uko egin diola.

Eskatzaileak baimena emango dio udalari beharrezko gestioak egiteko, dagozkion datuak egiaztatu nahiz biltzeko. Datu horiek erabiliko dira bakar-bakarrik araudi honetan ezarritako



baldintzak betetzen direla egiaztatzeko eta, hala badagokio, zerbitzua finantzatzeko baldintzak eta baliabide ekonomikoak egiaztatzeko.

Datuak faltsutu eta ezkutatu gero, zerbitzuaren eskatzaile izaera galduko da, sortu daitezkeen erantzukizunak ukatu barik.

#### **16. artikulua. *Tramitazioa.***

Erabiltzaileen beharren ebaluazioa, eta gizarte txostena eta proposamena egingo dira Gizarte Zerbitzuei buruz abenduaren 5eko 12/2008 Legean jasotako zehaztapenei jarraituz.

- A) Beharren ebaluazioa: Eskaeraren balorazioa eta ebazpen proposamena udaleko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako teknikariek egingo dituzte.

Teknikariek aztertuko dute aurkeztutako dokumentazioa.

- B) Gizarte txostena eta proposamena:

Gizarte Lanetako zerbitzu teknikoek gizarte txosten bat eta/edo nahitaezko proposamen bat egingo dute, zeinak zehaztuko dituen:

— Zerbitzuan sartu eta eskabidea aurkezteko baldintzak betetzea.

Hala badagokio, baldintzen salbuespen proposamen arrazoitua.

— Eskatzailearen egoera pertsonalak, familiarrak eta sozialak.

— Eskatzaileak zerbitzuagatik ordaindu beharreko kuota.

— Eskatzaileak aukeratutako hizkuntza.

Hala badagokio, zerbitzua ezeztatzeko proposamen arrazoitua.

#### **17. artikulua. *Ebazpena.***

Eskaera aztertu eta baloratu ostean, udal organo eskudunari igorriko zaio, zeinak ebazpen arrazoitua emango baitu, onartuz edo ezeztatuz eskatutako Zerbitzuan sartzeko eskaera. Baldintza hauetan ebatziko da:

Zerbitzuan parte hartzea urtebetekoa izango da. Urteko hori automatikoki berrituko da, Zerbitzuan sartzeko ezarritako baldintzetako baten bat ez bada aldatzen.

Urtekoa amaitu baino lehen aldaketaren bat izanez gero erabiltzailearen baten egoeran, eta, hortaz, sartzeko baldintzak ez baditu betetzen, kasuaren arduradunak erabiltzailearen parte hartzea baliogabetu ahal izango du.

Erabiltzaileak uko egin diezaioke Zerbitzuan parte hartzeari edozein unetan.



Ez bada berritzen, baliogabetzen bada edo uko egiten bazaio, Gizarte Ekintzaren Zuzendaritzak itxaron zerrendara joko du, eta beste pertsona bat hautatuko du hutsik dagoen plaza betetzeko.

Ebatzi beharko da gehienez ere hilabetean, eskaera udal erregistroren batean sartzen denetik. Epe hori eten egingo da eskaerak zuzentzeko eskatzen denean, jakinarazten denetik betetzen den arte edo, halakorik ezean, emandako epea igaro arte edo eskatzailearen autonomiaren balorazioari buruz Gipuzkoako Foru Aldundiaren nahitaezko txostena eskatu behar denean, baita gainerako kasuetan ere, aurreikusitakoak urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, 22. artikuluan.

Aurreko atalean jasotako epea igaro eta ez bada berariaz ebatzi, eta kontuan hartuta ebazteko betebeharra dagoela, ulertu daiteke eskaera ez dela onartu, interesdunak aukera izan dezan aukerako berraztertze errekurtsua edo administrazioarekiko auzi errekurtsua jartzeko.

Ebazpena aldekoa bada, alderdi hauek jaso beharko ditu:

- Eskaera sartzen dela zerbitzuaren eskatzaileen zerrendan.
- Prestazioa emango dela, zehaztuz zerbitzuaren kostua eta onuradunari dagokion kuota.
- Ebazpena ezezkoa bada, ezezko horren arrazoiak adierazi beharko dira, eta kasu hauetan gertatuko da:
  - Sartzeko baldintzak ez betetzea, jasoak araudi honen 10. artikuluan.
  - Zerbitzua ematea beste administrazio publiko baten eskumena izatea, prestazioaren ezaugarriak direla-eta edo eskatzailearen bizilekua dela-eta.
  - Beste arrazoi batzuk, behar bezala arrazoiak.

Ebazpenaren aurka, jakinaraziko dena legeak eskatzen dituen epeetan eta dagozkion baldintzak beteta, aukerako berraztertze errekurtsua jarri ahal izango da organo eskudunaren aurrean, edo zuzenean egin daiteke administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren ordenaren aurka legez ezarritako epeetan eta baldintzetan.

Ebazpen baieslea jakinaraziko zaio ere zerbitzua ematen duen erakundeari, zeinak exekutatu beharko baitu 7 egun naturaleko epean, jakinarazten denetik aurrera, ez bada itxaron zerrenda dagoela, eta, kasu horretan, Zerbitzuan sartzea onartuko da araudiaren 20. artikuluan xedatutakoaren arabera.

### **18. artikulua. Zerbitzura egokitzea.**

Interesdunak, zerbitzua sinatu aurretik, proba aste bat izango du ezelako konpromiso barik.

Era berean, egokitze hilabetea igaro eta gero, kasuaren arduradunak ebatziko du interesduna erabiltzaile sartuko den edo ez, enpresa adjudikaziodunaren profesionalak egindako egokitze txostenean oinarrituta. Horretarako, haren hondar gaitasun biopsikosozialak ebaluatuko dira.

## **2. ATALA. Zerbitzuan onartzea eta sartzea**



### **19. artikulua. Zerbitzuan onartzea.**

Zerbitzuan onartzeko, I. eranskinean jasotakoa hartuko da aintzat.

### **3. ATALA. Zerbitzuaren jarraipena**

#### **20. artikulua. Jarraipena eta ebaluazioa.**

Gizarte Laneko teknikariek segimendu jarraitua egingo dute, zerbitzua onuradunen beharrei egokitzen zaien ikusteko, eta dagozkien aldaketak proposatuko dituzte.

Aldian behin ebaluazioak egin ahal izango dira, onuradunak hala eskatuta, zerbitzua ematen duen erakundeak hala eskatuta, edo protokoloetan eta kontratuetan ezarritako eran.

Zerbitzuaren jarraipena eta ebaluazioa egiterakoan hizkuntzaren aldagaia txertatuko da.

### **V. KAPITULUA. ZERBITZUA ETETEA ETA IRAUNGITZEA**

#### **21. artikulua. Zerbitzua etetea eta iraungitzea.**

21.1. Zerbitzua aldi baterako etetea.

Dagokion espedientea bideratu eta gero, eta eskumena duen organoaren ebazpenaren bidez eta udaleko gizarte zerbitzuek hala proposatuta, ebatziko da zerbitzua aldi batez etetea, aldez aurretik interesdunari entzun eta gero. Ebazpen hori jakinaraziko zaio onuradunari, eta, hala badagokio, zerbitzua ematen duen erakundeari, legeak eskatzen dituen epeetan eta zehazten dituen baldintzak beteta.

Eguneko arreta zerbitzua, gehienez ere, 3 hilabetez etengo da, zio hauetako bat biltzen denean.

Erabiltzaileak ez badu betetzen 12. artikuluan ezarritako betebeharretako baten bat, baina eteteko arrazoi ez direnean. Etetea ofizioz hasiko da.

9. artikuluan ezarritako baldintzaren bat aldi baterako galtzen bada. Etetea hasiko da ofizioz edo erabiltzaileak eskatuta.

Erabiltzailea ospitaleratu egiten bada.

Erabiltzaileak bitarteko soziosanitariok eskuratzen baditu.

Eguneko arretarako udal zerbitzua etengo da erabiltzaileak eskatuta eta, gehienez ere, 45 egunez, arrazoi hauetako bat biltzen denean:

Oporraldiak hartzea.

Etenaldiak luzatu edo handitu egin ahal izango dira, profesionalen iritziz beharrezkoa bada.

21.2. Zerbitzua iraungitzea.



Espedientea bideratu eta gero, eskumena duen organoak emandako ebazpenaren bidez, eta udaleko gizarte zerbitzuen zuzendaritzak hala proposatuta, ebatziko dira zerbitzuko bajak, interesdunari entzun eta gero. Ebazpen hori jakinaraziko zaio onuradunari eta zerbitzua ematen duenari.

Eguneko arretarako udal zerbitzua eten egingo da arrazoi hauengatik:

- Erabiltzaileak uko egiteagatik.
- Zerbitzurako aurreikusitako epea amaitzeagatik.
- Erabiltzailea hil egin delako.
- Erabiltzailea beste udalerrri batera joateagatik, senideen etxeetan txandaka bizi denean izan ezik.
- Erabiltzailea beste baliabide edo programa batean sartzegatik.
- Zerbitzua ematea sortu zuen beharra ez egoteagatik.
- Zerbitzua emateko kontuan hartu diren datuak ezkutatzeagatik edo datu faltsuak emateagatik.
- Zerbitzuan sartzeko eskatutako baldintzaren bat galtzeagatik.
- Zerbitzua jarraitzeko eskatu daitekeen dokumentazioa ez emateagatik.
- Ez emateagatik 30 eguneko epean informaziorik bere egoera sozio-ekonomikoa aldatu izanari buruz.
- Eraso fisikoa edo psikologikoa eragiteagatik zerbitzua ematen duen langileari.
- Erabiltzaileek behin eta berriro ez betetzeagatik araudi honetan zehaztutako betebeharrak.
- Lankidetzarik ez egoteagatik gizarte laneko teknikariarekin edo zerbitzua ematen duenarekin.
- Arrisku fisikoak eta/edo psikikoak egoteagatik onuradunarentzat nahiz zerbitzua ematen duenarentzat, Gizarte Laneko zerbitzu teknikoek balorazioa egin eta gero.
- Zerbitzuko kuota bi edo gehiago ordaintzeko betebeharra ez betetzeagatik.

Iraungitzea ebatzi eta gero erabiltzaileak adierazten badu berriro Zerbitzuan sartu gura duela, beste eskaera bat egin beharko du, zeina tramitatuko baita araudi honetan zehaztutakoaren arabera.

Iraungi eta gero, erabiltzaileak ordaindu barik izanez gero zerbitzuren bat, eskatuko zaio hura ordaintzeko, zerbitzua berriro eman aurretik.

6 hilabete igaro badira zerbitzua iraungi zenetik eta betiere ordaindu barik zeuden zorrak kitatu badira, berriro eskatu ahal izango du Zerbitzuan sartzeko.



## **VI. KAPITULUA. ZERBITZUAREN ERREGIMEN EKONOMIKOA**

### ***22. artikulua. Eguneko Arretarako (Autonomia Sustatzeko)Udal Zerbitzuaren prezioak: kontratuaren prezioa eta erabiltzailearen ekarpen ekonomikoa.***

Prezio mota bi hauek erabiltzen dira eguneko arretarako udal zerbitzua finantzatzeko eta erabiltzaileen kuota kalkulatzeko:

— Kontratuaren prezioa, eguneko arretarako (autonomia sustatzeko) udal zerbitzuaren adjudikazioarena.

— Erabiltzaileak zerbitzuaren truke ordaindu beharrekoa.

Ez zerbitzua ematen duen pertsonak, ez enpresa adjudikaziodunak, ez du onartuko dohaintzarik, ez ordainketa gehigarriak, aurreko paragrafoan adierazitakotik kanpora. Enpresa adjudikaziodunak zorrotz zainduko du betebeharrak hori betetzen dela.

### ***23. artikulua. Finantzazioa.***

Zerbitzuak finantzatzeko dira hauen kontura:

Onuradunaren kontura, zeinak parte hartu beharko baitu zerbitzua finantzatzeko, eta onartuko du konpromiso sinatu bat diru kopuru bat ordaintzeko, organo eskudunaren ebazpenean ezarritakoa, eduki dauzkan baliabide ekonomikoaren arabera, ezinbesteko baldintza baita zerbitzua ematen hasteko.

Arretxabaletako Udalaren kontura, zeinak jarriko baitu kontratuaren prezioari onuradunak ordaindu beharreko diru kopurua kenduta geratzen den kopurua, eta hori kalkulatu da 24. artikuluari eta II. eranskineko irizpideei jarraituz.

### ***24. artikulua. Ekarpen ekonomikoa.***

Arau honek erregulatzen dituen zerbitzuen erabiltzaileak hilero ordaindu beharko du diru kopuru bat, kalkulatu kontuan hartuta haren ahalmen ekonomikoa. Ahalmen hori finkatzeko, kontuan hartuko da eskatzailearen errenta.

Ekarpenak ez du loturarik izango erabiltzailea joatearekin hileko edo hilabete horretan aktibo dagoen egunetako saio guztietara edo batzuetara.

Ekarpena urtean 11 hilabetez egingo da (abuztuan izan ezik). Zerbitzua abuztuan eskaintzen bada, dagokion ekarpena ere egingo da.

Diru kopurua ordaintzea ezarriko da elementu horien arabera eta I. eranskinean ezarritako irizpideen arabera.

Erabiltzaileak pertsona helduak badira, dihardutenean legezko ordezkari baten bidez edo izatezko zaintzaile baten bidez sarbide araudian aurreikusitako baldintzetan, azken horiek



behartuta egongo dira diru kopurua ordaintzera, baina, halako kasuetan, ordezkatuaren errentaren kontura ordainduko da, eta ahalmen ekonomiko zenbatua izango da ordezkatuarena.

Ahalmen ekonomikoari buruz datuak faltsutu edo ezkutatu gero, eskaera artxibatu egingo da, edo, zerbitzua emanda badago, zerbitzua iraungi egingo da, eta, gainera, gertaera horietatik erantzukizunak egon daitezke.

Zerbitzuen erabiltzaileak eta, hala badagokio, haien legezko ordezkariak, behartuta daude udalari jakinarazten, gertatu eta 30 egunean, edozein aldaketa gertatzen bada familia unitatearen errentan, ondarean edo pertsona kopuruan, eta erabiltzaileak ordaindu beharreko diru kopuruan eragina izan dezakeen beste edozein gorabehera gertatzen bada.

Erabiltzaileak ordaindu behar duen diru kopurua ofizioz berrikusi beharko dute udal teknikariek, erabiltzaileak edo haren ordezkariak eskatuta, aldaketaren bat gertatzen bada egoera eta baldintzetako edozeinetan, prezio publikoari eraginez.

#### ***Lehen xedapen gehigarria.***

Araudiaren laburpen bat prestatuko da erabiltzaileei emateko.

#### ***Lehen azken xedapena.***

Tokiko Gobernu Batzarri ahalmena ematen zaio behar diren arauak eman ditzan, araudi hau aplikatu eta garatzeko.

#### ***Bigarren azken xedapena.***

Araudi hau indarrean sartuko da Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN osorik argitaratu eta hurrengo 15 egun balioduneko epean.

### ERANSKINA: ZERBITZUAN SARTZEKO BAREMOA

Sartzeko baremoak eskatzaileen zerrenda ordenatzeko irizpideak eta diagnostiko sozialaren arabera zerbitzurako sarbidea izateko lehentasunak finkatzen ditu.

A. Sartzeko lehentasunaren arabeko taldeak.

1. Mendekotasuna Baloratzeko Baremoan (MBB) 25 - 39 (biak barne) puntu dituzten 65 (barne) urtetik gorako pertsonak.
2. Mendetasuna aitortu gabeko adinekoak edo 25 puntutik beherako puntuazioa dutenak MBBEn, 75 urtetik gorakoak, hauskortasun-egoeran daudenak.
3. Isolamendu, bakardade, abandonua edo tratu desegokian jasateko arriskuan edo egoeran dauden 65 urtetik gorako pertsonak.



4. Aurretiko lehenetsun irizpideak lehenetsita, ondorengo baremoan puntuazio handiena lortzen duten pertsonak.

B. Baremoaren egitura:

Alderdiak	Puntuazio tartekak
Adina	0-2
Menpekotasun-maila	0-8
Egoera ekonomikoa	0-10
Familia-egoera	0-20
Isolamendu soziala	0-25
Osasuna	0-10
GUZTIRA	0-75

<i>Alderdiak</i>	<i>Baremoa</i>	<i>Puntuak</i>
1.- ADINA	<80 urte	0
	>80 urte	2
	GUZTIRA (gehienez 2 puntu)	
2.- MENPEKOTASUN-MAILA (MBB)	MBB 0-15 puntu	0
	MBB 16-22 puntu	2
	MBB 23-24 puntu	5
	MBB 25-39 puntu	8
	GUZTIRA (Gehienez 8 puntu)	
3.- EGOERA EKONOMIKOA	Diru-sarrera hilero (per kapita, 14 ordainsari)	





<i>Alderdiak</i>	<i>Baremoa</i>	<i>Puntuak</i>
	>200% LGS(*). Edo ez du nahi egoera ekonomikoa baloratzea	0
	>151%-200% LGS	3
	>101%-150% LGS	6
	>61%-100% LGS	9
	<60% LGS	10
	GUZTIRA (Gehienez 10 puntu)	
4.- FAMILIA-EGOERA	ERLAZIOAK	
	Erlazionatzeko arazorik gabe	0
	Harremanak okertzea / Inolako harremanik gabe / Familiarik gabe	5
	Harreman gatazkatsua / Tratu ez egokia	10
	GUZTIRA (gehienez 10 puntu)	
	BIZIKIDETZA-EGOERA	
	Bakarrik bizi da/nahi gabeko bakardadea	10
	Etxebizitza partekatua arazoekin	5
	Familiarekin bizi da	0
	GUZTIRA(Gehienez 10 puntu)	
	FAMILIA EGOERA GUZTIRA (Gehienez 20 puntu)	
5.- ISOLAMENDUA	Gizarte-isolamendurik gabe	0
	Gizarte-eta familia ahultzea	5



<i>Alderdiak</i>	<i>Baremoa</i>	<i>Puntuak</i>
	Soilik erreferentzia-talde homogeneoekiko eta integrazio komunitario txikiko taldeekiko harremana	10
	Integrazio komunitario urria edo hutsala duten talde marjinal edo sektarioekiko harremana soilik	15
	Gizarte isolamendua	25
	GUZTIRA (Gehienez 25 puntu)	
6.- OSASUNA	Gaixotasun fisikoa	2
	Buruko gaixotasuna	2
	Alkoholaren abusua / drogen abusua	2
	Desgaitasuna	2
	Tratamendurik gabe	2
	GUZTIRA (Gehienez 10 puntu)	

## II. ERANSKINA: EKARPEN EKONOMIKOAREN BAREMOA

A) Ahalmen ekonomikoaren kalkulua:

Ahalmen ekonomikoa kalkulatu da elementu hauek balioetsiz:

— Errenta.

Errentatzat hartzen dira zerbitzuaren onuradun direnen diru sarrera garbi guztiak. Diru sarrera horiek hauetatik datozenak izango lirateke:



— Lan etekinak, pentsioak eta gizarte aurreikuspeneko prestazioak barne, horien erregimena edozein izanik ere, aldi baterako errentak edo biziartekoak eta Diru sarrerak Bermatzeko Errenta.

— Kapital higigarriaren nahiz higiezinaren etekinak.

— Enpresa edo lanbide jardueren etekinak.

Errenta zenbatzean, ez da diru sarreratzat hartuko:

— Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarria, Etxebizitzarako osagarria KGPen titularrentzat eta etxebizitzaren legearen ondorioz izan litezkeen laguntzak.

— Prestazio ekonomikoak, Autonomia pertsonala sustatzeari eta menpekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko Legetik eratorritakoak.

— Gizarte Segurantzako Institutuaren prestazio ekonomikoa, seme edo alaba adingabe bat ardurapean edukitzeagatik.

— Haborokin ekonomikoak, okupazio zentro batera joateagatik jasotakoak.

— Aurretiko ohiko etxebizitza batetik jasotako alokairua, utzi behar izan dena oztopo arkitektonikoengatik edo salbuespenezko zirkunstantziengatik (genero indarkeriaren biktima diren emakumeak ...), etxebizitza berria bat alokatzeko edo erosteko kredituaren gastuei aurre egiteko beharrezko kopururaino (etxebizitza berriaren gastuaren zenbatekoa gainditzen ez duen zatian). Soberakinik egonez gero zenbateko baten eta bestearen artean, diru sarrera gisa zenbatuko litzateke.

Diru sarrera guztietatik, kenduko dira:

— Konpentsazio pentsioak ordaintzea, banantzearen ondorioz eta/edo guraso eta seme-alaben arteko neurrien ondorioz, egonez gero, epai judizialaren arabera, dagokion justifikazioa aurkeztuta.

— Zerbitzuak aldi berean erabiltzeagatik jarritako diru kopuruak: erabiltzailea aldi berean beste gizarte zerbitzu asistentzial edo okupazional baten onuradun bada, urteko bat kenduko zaio diru sarreretatik, eguneko prezioaren arabera, dagokion beste laguntza zerbitzuaren administrazio eskudunaren ebazpenak ezarritako diru kopurua jartzeagatik.

B) Kalkulatzeari zer diru kopuru ordaindu behar den:

Zerbitzuaren erabiltzaileak diru kopuru bat jarriko du hilero zerbitzu horretan parte hartzeagatik, eta kopuru hori jasoko da zerbitzua eskuratzeko ebazpenean.

Onuraduna ezkondua badago edo izatezko bikotea bada, irabazpidezko erregimenean edo ondasunak banantzeko erregimenean, kontuan hartuko da bikotearen errenta osoa, eta, gero, errenta hori zati bi egingo da.

Ahalmen ekonomikoa erabiltzailearen diru sarreraren arabera izango da, urteko diru sarrera garbiak kontuan hartuta:



- Kapital higigarriaren urteko etekin garbia.
- Kapital higiezinaren urteko etekin garbia.
- Urteko diru sarrera arrunt garbiak.

Programan diru kopurua jartzeko, lau tarte ezarriko dira, erabiltzailearen ahalmen ekonomiko indibidualaren mailaren arabera:

<i>Erabiltzailearen ahalmen ekonomiko indibiduala</i>	<i>Hileko aportazioa</i>
LGSa baino gutxiago	5 €
Bat eta 2 bider arteko LGSa	10 €
2 eta 4 bider arteko LGSa	30 €
4 bider LGStik gora	60 €